

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 14ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BERTATIK ELIKATUZ LANERATZE ENPRESAREN EGITASMOARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA BERRITZEA

HERNANIKO UDALAK, 2023ko otsailaren 28an egindako Osoko bilkuran, Hernaniko Udalaren eta BERTATIK ELIKATUZ laneratze enpresaren arteko diru-laguntza hitzarmena onartzea erabakia hartu zuen.

Ikusita, 2024ko otsailaren 27an justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu dutela, eta hau ontzat eman dela.

Ikusita, aipatutako HITZARMENAREN indarraldia 2026ko abenduaren 31 artekoa dela.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2024ko martxoaren 07ko bilkuran gehiengoz emandako irizpena

Ikusita Tokiko Gobernu Batzarrean bozketaren emaitza

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **GEHIENGOZ erabaki du**

Lehena.- Hernaniko Udala eta Bertatik Elikatuz laneratze enpresaren arteko diru-laguntza hitzarmena berritzea.

Onuraduna: Bertatik Elikatuz laneratze enpresa.

Diru Kopurua: 50.000 €

Aurrekontuko partida: 1.02.471.03.439.00 2024 Kopurua: 50.000,- (AD-322/2024).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeo errekurtsua aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsuak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko martxoaren 14an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU8e6e9e65-1fb8-4dba-b7f9-499200784350**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>